




Atzo zabaldu zuten txotx denboraldia Gipuzkoan. Aurtengo uzta ona izan da, eta sagardo freskagarri eta atsegina lortu dute

III Aina Arratibel

Sagardo Berriaren Egunarekin eman zioten atzo hasiera aurtengo sagardo denboraldiari Astigarraga (Gipuzkoa) inguruko sagardogileek. Barrikak beteta zeuden duela egun batzuetatik; baina hasiera ekitaldia egitea falta zen, jendeak horretaz gozatzeko. Aurten, gainera, «azken urteetako uztarik onena» izan dela nabarmendu zuten sagardogileek. Sagardotegira joan eta eztarria bustitzea bestenk ez da falta.

Jende mordo bildu zen atzo eguerdian Astigarragako udaletxeko Batzar Aretoan, aurtengo uzta nolakoa izan den jakiteko. Horixe zen ahoz aho zebilen galdera. Izan ere, lortutako sagardoa sagarren arabera da neurri handi batean. Erantzuna berehala jakin genuen: ona eta oparoa. Hala adierazi zuen Sagardun Elkarteak

Aurtengo sagardoa: freskagarria



HAINBAT AHOLKU

Sagardun elkarteak eta Astigarragako Udalak aholku batzuk eman nahi dizkiete sagardozaletzi

- Lekua alde zuzenetik hartu.
- Arropa eta zapata egokiak jantzi.
- Zortziak inguruan iritsi.
- Sagardogilearen esanak jarraitu.
- Edalontzia txotxean ondo jarri, eta gutxi bete.
- Sagardoa begiratu, usaindu eta dastatu.
- Ondokoekin iritziak partekatu.
- Edalontziak hutsik eraman behar dira mahaira.
- Aparkatzeko ipini diren tokitan utzi autoa.
- Herritarrek lo egin behar dute, errespetatu.

idazkan Jose Angel Goñik. Irailaren 20an hasi ziren sagarrak biltzen, eta guztira 7000 tona landu dituzte Astigarragan. Nahiko tamaina justuko sagarrak izan dira aurtengoak; baina foraldi oparoak sagar asko ekarri du. Euren ezaugarri nagusia hau izan da: taninoen eta azidoaren arteko oreka.

Erabilitako sagarren %58 Gipuzkoakoak izan dira. «Horrek sagardogileen eta baserritarren arteko elkarlana erakusten du. «Guretzat oso garrantzitsua da hori, sagarrek eta sagardoa egiten dutenen eskuek ahalbidetzen baitute sagardo ona», azaldu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari Jesus Argiñarenak. Iritzi berekoa zen Jose Angel Goñi: «Baserritarrek eta sagardogileok batera egin behar dugu lan. Azken urteek argi eta garbi erakutsi digute hori. Askotan ez gara konturatzen baserritarren lana oso garrantzitsua dela; eurek zaintzen dituzte sagastiak».

Gipuzkoako Foru Aldundiak urteak daramatza sagardotarako sagarrak sustatzen eta ikeritzen. Horretako, hainbat ekimen ipini ditu abian: «2004an, adibidez, 4.500 sagarondo berri aldatu ziren Gipuzkoan zehar. Oreka bilatzea, baserritarren lana erraztea eta sagarren eta sagardoaren kalitatea bermatzea dira gure helburuak», azaldu zuen. Eurek lan horretan jarraituko dutela nabarmendu zuen Argiñarenak: «Aldundiaren aldeak prest gaude sektoreak di-



AURTENGO SAGARDOA

Landutako sagar kopurua:

Astigarragan 7.000 tona.

Ezaugarriak: Taninoen eta azidoaren oreka dute.

Jatorria: Erabili den sagarren %58 Gipuzkoakoak da.

Egindako sagardoa: 7.500.000 litro Astigarragan.

Berezitasunak: Osatua eta bukaera freskagarria

III Andoni Egañak eta Sebastian Lizasok bertso bana abestu zuten.